



Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako,
Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa
Concejalía de Impulso Económico,
Comercio, Hostelería y Turismo



Bertako produktuek identifikatutako lekua izango dute Donostiako Alde Zaharreko dendetan

Sustapen Ekonomiko, Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo Zinegotzigoak, Donostiako Sustapenaren eta Guztiona Klusterraren bitartez, Donostiako merkataritzan bertako produktuaren ikusgarritasuna sustatu nahi du eta, horretarako, “bertako benetako zaporea duten produktuak” kanpaina jarriko du martxan. Kanpaina horren bitartez, produktuak identifikatutako lekuan jarriko dira denda bakoitzean. Zurezko kaxa batean egongo dira ikusgai kanpainaren xedea eta horri atxikitako denden mapa zehaztuko dituen liburuxka batekin. Orain arte Alde Zaharreko 19 dendek eman dute izena ekimen honetan.

Donostia, 2016ko otsailaren 23an

Asko dira Donostian jada bertako benetako zaporea duten produktuak eskaintzen dituzten dendak, Kilometro 0 jakiak, “hurbilekoak” gisa ere ezagutzen direnak; hauek, kontsumitzailearengana iritsi aurretik milaka kilometro egiten dituzten produktuek ez bezala, bertan egiten eta merkaturatzen dira, freskoagoak dira, kontsumitzailearengandik hurbilago daude eta karbono-lorratza murriztea lortzen dute.

Ernesto Gasco Sustapen Ekonomikoko eta Merkataritzako zinegotziak honako hau adierazi du “kanpainaren helburua dendetan identifikatutako leku bat orokortzea dela, kontsumitzaileek, bertakoek nahiz bisitariak, bertako produktua zein den identifikatu ahal izateko. Horretarako, zurezko kaxa bat diseinatu da, bertako benetako zaporea duten produktuak lelopean denda bakoitzak bere bezeroei eskaini nahi dizkien produktuak sartu ahal izateko eta, baita, liburuxka bat ere bertako produktuak kontsumitzeak dituen onuren eta ekimen horretara atxikitako establezimenduen berri emanez” Gainera, kanpaina autobusen markesinetan informazio-panelak jarritz indartuko da.

Esperientzia pilotu bat da, Gipuzkoako Merkatarien Merkataritza Federazioarekin lankidetzan gauzatu dena; San Sebastián Shopss, Zaharrean eta Bretxak ere hartu dute parte ekimen horretan. Esperientzia pilotu hori martxan jartzeko, Donostiako

Alde Zaharra hautatu da. Auzo horretako dendariak parte hartzera gonbidatu ziren eta proiektuaren bi fase finkatu ziren:

- 1.- Lehenengo fasean, establezimenduan, bertako produktuaren marketinean, izan zitezkeen hobetzeko aukeren diagnostikoa egin eta plan bat prestatu zen.
- 2.- Bigarren fasean, berriz, dendek, hiri-mailan, komunikazio-plan batean hartuko dute parte.

Horretarako, Sustapen Ekonomikoa Zinegotzigoak lehenengo etapan denda bakoitzarentzako laguntza tekniko pertsonalizatua erraztu du eta, bigarren etapan, kanpainaren euskarriak diseinatu dira, hots, kaxa, liburuxkak, markesinak eta abar, Donostiako hiritarrek eta bisitariek bertako produktua hobeto bereizi eta ezagutu dezaten.

19 dendek gauzatu dituzte proposatutako bi faseak: **Aitor Lasa Gaztategi, San Sebastián Food Tienda Gourmet, Lur-Lan, Etxezarreta Harategia, Iñaki y Jenny -Artesanía en Alimentación, Maialen, Carnicería Iñaki Balerdi, Organic 49 Alimentación Biológica, Ibéricos de Luxe, Zapore Jai, Elkano 1- Gaztagune, Carnicería Salvador Aguirre Harategia, Bioleku - Ekologik Market, Carnicería Andoni Etxebeste Harategia, Sukalde, Amalur Food, La Sevillana, Kutixik Delicatessen eta Solbes.**

Ekimen honetan parte hartzen duten ekoizleak, berriz, honako hauek dira: **Lurrarte, Goenaga, Igeldoko Esnea, Maisor, Carlos Petrina, Olatu, Garikoitz Martikorena Etxabe, Ezkurtxerri, S.L., Gipuzkoako Sagardogileen Elkarte, Basqueland Brewing Project eta Lumagorri.**

“Proiektu honek, bertako benetako zaporea duten produktuen kanpaina honek, hiriko sektore estrategikoen (Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa) lankidetzaren bitartez bertako produktuen kontsumoa sustatzeko apustu horretan beste une gogoangarri bat izan nahi du eta, horrela, tokiko ekonomiaren garapenari, donostiarren osasunaren zainketari eta ingurumenarekiko errespetua sustatzeari ekarpena egin karbono-lorratza murriztuz” azpimarratu du Ernesto Gasco jaunak.